

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Auzorantz APP-a internet bitartez iristen da bezeroei, honen ondorioz ez legoke egongo inolako kanal fisikorik, baizik eta hurrengo **kanalak**:

1. Komunikazio-kanalak:

- a. Kontsumitzaileekin. Publizitatea erabiliko dugu batipat gure produktuaren berri emateko.
 - i. Publizitate fisikoa. Herrian zehar kartelak jarriko ditugu. Sarearen barruan dauden saltokietan ere errotulo batzuk jarriko ditugu eta informazio egongo da eskuragarri
 - ii. E- komunikazioa. Sare sozialak eta interneteko iragarkiak ere erabiliko ditugu. Interneten gure presentzia ziurtatzeko sare sozial erabilenetan egongo gara: Instagram, Twitter, Facebook... Sare sozialetan herriko merkatariekin lotutako informazioak sortuko ditugu. Interneteko iragarkiak herriko dendetako webguneetan kokatuko ditugu.
- b. Negozioekin
 - i. Komunikazio pertsonala: Haiekin harremanetan egotea fisikoki, hau da, haien negoziotara joan konbentzitzera eta eskaintzera gure produktua eta hauen baliabideak; eta beraiek behar dutenean gure negozioko pertsona bat hara joango da kezkak eta arazoak konpontzeko APP-aren bidez ahal ez denean.
 - ii. Publizitatea. Kartelen bitartez eta internet eta sare sozialen bitartez, aurreko atalean aipatu dugun moduan.

2. Banaketa eta salmenta kanalak:

- a. Kontsumitzaileak: Gure App-a play store-n dohainik eskainiko dugu, honen bidez, harremanak izango genituzke kontsumitzaileekin
- b. Negozioekiko salmenta kanala fisikoa eta elektronikoa izango litzateke. Zerbitzua kontratatu nahi duen negozioa gurekin jarriko zen harremanetan telefono edo e-mail baten bitartez. ondoren gure ordezkari bat negozio horretara hurbilduko litzateke zerbitzua saltzera.

